



Errotatxu

etxebizitza

Aldacrak: Astola / Errotarin

Ahozkoa: Errótatxo / Errótatxu / Urréjolana

“... la casería rústica titulada Astola digo que es Molino llamado Errotachu,... radicante en el barrio de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que ocupa una planta de cincuenta y tres estados superficiales, o ciento sesenta y tres metros cuadrados...”
DJE, 1/27 or. (1863)



43° 11' 19"

2° 36' 5"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Egun erorita dagoen errota honen inguruko lehen aipu dokumentala XVIII. mendearen erdialdean egindako su-erroldan aurkitzen dugu: *Errotachu* (1745). Mendeetan zehar agiritan izen berarekin mantendu da, 1863ko jabego-eskrituretan izan ezik, bertan *Astola* izena ere aurkitzen baitugu: “... la casería rústica titulada Astola digo que es Molino llamado Errotachu,...”. XX. mendeko aipuetan azken izen hori aurkitzen dugu, hots, *Errotachu* (1967, BUA, CE). Dena den, 2010. urtean Gerediaga Elkarteak martxan jarritako “*Baseriak* on-line” datu-basean *Errotarin* moduan agertzen da. Ez dakigu nondik datorren izena.

Aurri egoeran dagoen eraikina izan arren, harlangaitzezko horma sendoek zutik diraute oraindik, harlanduzko kantalak eta leiho ertzak bezala.

Bada gertu *Errotatxu* izeneko beste eraikin bat, 1903an egin zutena, argindarraren enpresaren-tzako. Garai hartako arkitektura industrialaren arabera burutu zen, material xumeekin baina ondo luzituta. Beheko solairuaren nagusitasuna igartzen da leihoei emandako tratamenduan, hau da, neurrian, forman eta molduretan. Solairuen banaketan eta etxearen kantaletan ere, moldurak egin zizkioten. Binaka elkartutako leihoei esker, ondo argiztatutako etxea da.

toponimia

Izen gardena “errota txikia” adiera duelako. Hori bai Bizkaian ohikoa den -txu txikigarriarekin, ez ohikoa den -txo. 1745ean ageri bada ere litekeena da lehenago beste izen bat izatea, baina hori teoria hutsa da. Errota hitza latineko rota-tik atera genuen euskaldunok. Berez errota garia ehotzen zuen harria zen, baina gero lantegia izendatzeko zabaldu zen. Gaztelaniaz latineko hitz honek rueda eman du